

Bilboko Zinema Ikusezina nazioarteko jaialdian euskaraz egindako lanik onenaren saria jaso berri du Iratxe Fresneda Delgadoren “Irrintziaren oihartzunak” filmak. EHUko Komunikazio fakultateko irakaslea da ogibidez, eta denbora luzean ibili da Mirentxu Loiarte zuzendariari buruzko pelikula bat egin nahian. 2016an eman zuen azkenean, eta espero baino harrera hobeia izan zuen. Zinemaldiaren

64. edizioko Zinemira sailetik pasatu ostean, hegoak zabaldu eta aireratu egin da filma.

Zergatik egin duzu orain pelikula?

Batzuetan bizitzak aurrean jartzen dizkizu horrelako erronkak. Aspalditik nuen ikerketa hasita; hartu eta laga egiten nuen egunerokotasunagatik, bizitza pribatuan dituzun aferengatik, eta baita ere eguneroko lanak kentzen dituzun denboragatik. Nik nire lanbidea daukat, hemen, Euskal Herriko Unibertsitatean,

klaseak ematen, irakasten, eta horrek beste bide batzuetatik eramane nau. Baina momentu bat iritsi zen, non ate jota etorri zitzaidan istorioa berriro, eta pentsatu nuen ez banuen egiten ba agian bere istorioa galdu egin zitekeela eta bazela garaia halako emakume zinemagile erreferente bat mahai gainean jartzeko, ez genituelako hainbeste, eta are gutxiago aitzindari izan direnak.

Basterretxea eta Larrukerten garaikoa, 1978an egin zuen “Irrintzi” filma, eta gainera film horrekin Espainiako zine-

«Konplikatua zen garai hartan zinema egitea, konplikatua zen emakume batek pelikula bat aurrera eramatea eta are gehiago euskaraz»

matografiako kalitatearen saria irabazi zuen; eta hori ez da gutxi lan esperimental baten-tzako, euskaraz egindakoa eta politikoki eta formalki oso ausarta izanda, gainera. Bazegoen istorio interesgarri bat.

Hainbeste mimoz egindako film txiki honek izan duen harrerari buruz zer diozu?

Egia esan, ez nuen espero. Ondo dago. Esaten dizu ez zoazela bide okerretik eta nolabaiteko saria da zure lanagatik, oso gogorra izan delako ekoizpen hau era independentean oso



«Hasieran Loiarteren lanengatik piztu zitzaidan interesa; gero pertsonaiara iritsi nintzen»

aurrekontu txikiarekin aurre-
ra ateratzea eta bi emakume-
ren artean. Laurent Dufreche
izan dut bidelagun, nire ondo-
an egon da beti. Berarekin
egin nuen muntaia baina oso
lan bakartia izan da askotan.
Beste batzuetan Saioa Etxeba-
rriarekin.

Gure asmoa zen aske izatea
lana egiterako unean. Zure au-
rrean interesgarria den pertso-
naia bat eta material interes-
garria duzunean mimoz
tratatu behar dituzu. Pelikulek
elkarrizketatuak izatea eska-
tzen zuten. Ni ez naiz batere
mitomanoa eta interesa bere
lanengatik piztu zitzaidan. Ge-
ro pertsonaiara iritsi nintzen,
lanen bitartez. Mirentxu oso
pertsona eskuzabala izan da
gurekin.

Nor da miresten duzun ema- kume hori?

Euskaraz film bat egin duen le-
henengo emakumea izan da
Mirentxu Loiarate. Bitxia da
baina berak ez daki euskaraz;
ulertzen du, baina ez du hitz
egiten. Bere garaian hautu ho-
ri egin zuen, eta nire ustez be-
re garaian eta batez ere zine-
magintzan oso hautu
politikoa izan zen. Konplika-
tua zen garai hartan zinema
egitea, konplikatu eta ema-
kume batek pelikula bat aurre-
ra eramatea eta are gehiago
euskaraz. Oso apustu interes-
garria egin zuen, baina gero
itzalpean edo albo batean gel-
ditu zen egindako hori guztia.

Erbusteratua izan zen behin baino gehiagotan.

Venezuelan bi aldiz izan zen,
Frantzia aldean ere bere biko-
tekidearekin batera. Nik uste
dut horrek, politikarekin eta
emakume izatearekin batera,
bere ibilbidea markatu zuela,
zeren idaztea bakarkako lana

izan daiteke, ia edonon egin
dezakezuna, baina pelikula bat
egiteak beste pertsonekin ego-
tea eta zenbait tresna izatea
eskutzen dizu, eta horrek zail-
du egiten du prozesua. Lehen
ezinezkoa zen ezer egitea ba-
liabiderik gabe. Horregatik, er-
busteratua izateak bere ibilbi-
dea markatu zuen.

Loiarteren filmek zein ga- rrantzia dute, zure ustez?

Mirentxuk Parisen ikasi zuen
zinemagintza eta bertan egin
zituen zenbait film labur, bai-
na galduak daude. Egun ezagu-
tzen ditugunak “Irrintzi” eta
“Euskal emakumeak” dira.

“Irrintzi” edukiarengatik,
formarengatik, oso ausarta
izan zen. “Amalur”-etik edaten
du, baina planteatzen duen
ikuspegia askoz ere arrisku-
tsuagoa da eta zentzu batean
modernoagoa. Oso kurio-
soa da nola egiten duen maskuli-
nitatearen errepresentazioa.
Oso elkarrizketa bikaina sor-
tzen du irudi eta soinuen arte-
an. Basterretxeak eta Larruker-
tek ere horrela egiten zuten
lan. Baina batez ere ederra da
sinbolismoa, horrelako kultur
unibertso baten lotura guztiak
nola ezartzen dituen. Leher-
gailu bat da, irrintzi bat, oi-
hu bat, eta oso ondo dago irudika-
tuta; oi-
hu kultural eta politi-
koa.

Eta zer diozu «Euskal emaku- meak» lanari buruz?

Antxon Ezeizak egin zuen
Ikuska sailen barruan egin
zuen, “Ikuska 12” izan zen. Mi-
rentxu emakume bakarra izan
zen, eta kasualitatez hartu zu-
ten bera, nahiz eta ordurako
bazeuden emakume ugari zi-
nema egiten. Antxon Ezeizak
eskatu zion emakumeen ingu-
ruko pelikula bat egiteko, eta
berak erabaki zuen “Euskal

emakumeak” egitea, euskaraz,
eta herrialde desberdinetako
emakumeen testigantzak bil-
tzen dira Euskal Herrian zuten
toki publiko eta pribatuaren
inguruan hitz egiten. Oso mo-
derno da planteamenduaren
aldetik, eta bertan bildu zituen
testigantzen inguruan hitz
egiten badugu, egun ere antze-
rakoak aurkitu ditzakegula.

Nola osatu zenuen zure peli- kularako lantaldea?

Saioa Etxebarriak eta biok du-
gun harremana aspaldikoa da,
txikitatik. Ikastola berean ikasi
genuen, adiskideak gara eta
baditugu elkarrekin egindako
ikus-entzunezko artefaktu txi-
kiak. Era naturalean aurkeztu
nion neukan ideia eta galdetu
nion ea bidean nirekin etorri-
ko zen eta baietz esan zidan.
Nire ikerketatik eratorritako
istorio hau mugitzen hasi gi-
nen orduan.

Gero Laurent Dufrechekin
jarri nintzen harremanetan
bere lana ezagutzen nuelako.
Iruditzen zait berak duen sen-
tiberatasuna muntaia ulertze-
rakoan nire muntaiaren ikus-
pegiarekin bat zetorrela. Eta
orduan erabaki nuen bera izan
behar zela, nahiz eta perso-
nalki ez nuen ezagutzen. Bera-
rekin zita egin nuen, proiektu-
a aurkeztu nion eta berehala
joan ginen muntaketa gelara
[barreak]. Gustatu zitzaion eta
istorio bat nuela ikusi zuen,
eta material guztia muntatzen
hasi ginen.

Emakumeek emakumeen ikuspuntutik egindako peli- kula bat dela esan dezakegu?

Bada pelikula bat ikertzaile ba-
ten ikuspuntutik, talde baten
ikuspuntutik, eta emakume
baten ikuspuntutik ere bai. Ez
bakarrik emakume baten ikus-
puntutik, ikuspegi feminista

IRATXE FRESNEDA DELGADO

ZINEMA ZUZENDARIA

Euskal Herriko zinemagintzan erreferente

izan zitekeen emakume bat ez dugu

ezagutzen. Mirentxu Loiarate da hori eta

Fresnedak bere berri jaso du «Irrintziaren

oihartzunak» filman

Nagore Belastegi Martin

batetik baizik. Hau da, Euskal Herriko zinemagintzan erreferente izan zitekeen emakume bat ez dugu ezagutzen, ez dugu ia irudirik, eta publiko zabalak ez du bere istorioa ezagutzen, ezta bere lana ere eta pertsonaia bera ere ez.

Nire helburua hori guztia ikusgarri egitea eta nolabait protagonista bera bakarrik bihurtzea zen. Bere inguruan egon diren bestelako pertsonaiak erditik kendu nahi nituen hitz egiteko aukera izan zezan, orain arte izan ez duen eksklusibitatea eskuratu zezan.

Zinemagintzan emakume gutxi ezagutzen dira.

Oso gauza egiturazkoa da, gizarteari dagokiona eta mundu mailan ikusten dena. Duela gutxi hasi ziren Alice Guy-Blache-ri buruz edo zinemagintzako bestelako emakume aitzindariak buruz hitz egiten, eta asko egon ziren. Hollywooden XX. mendeko lehen erdialdean emakume pila bat ibili ziren ekoizle, gidoi erosle, muntatzaile moduan lanean, eta ez bakarrik aktore edo zuzendari lanetan, baina oso gutxi ezagutzen ditugu. Egia da gizonak ere ez direla hain ezagunak profesio horietan, baina emakumeak are gutxiago.

Gizartea heteropatriarkala izan da beti gurean eta horrek markatu du nor lehenetsi. Tradizioz botereguneetan gizonezkoak egon dira, batez ere esparru publikoan, eta horrek markatzen du euren ikusgarritasuna.

Zein da, zure ustez, jarraitu beharreko norabidea?

Niretzat oso garrantzitsua da hezkuntza sistematik hastea. Adibide bezala jarriko nuke kirolean gertatzen den segregazioa. Batzuetan arrazaren bi-



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

tartez egiten den segregazioak eskandalizatzen gaitu, baina ez sexuen bidezko segregazioak. Zergatik egiten dira oraindik kirolean emakume taldeak eta gizon taldeak txikitatit hasita? Horrek markatu egiten ditu gizakien arteko harremanak. Haurren artean kirolaren praktikaren esparru horretan sortzen diren harremanak oso garrantzitsuak dira sozializazioan sartzen ari garelako. Eta mutilak eta neskak bananduta badaude, horrek markatuko du beraien munduaren ikus-

pegia. Eta oraindik hori ari gara egiten. Ni oso erradikala izango nintzateke eta segregazio hori debekatu egingo nuke. Gizartearen ardura ere bada. Deabrua detaile txikietan dago. Gizakiari mugak ezartzen dizkiogu jaiotzean dugun sexuaren arabera.

Zein ibilbide izan du «Irrintziaren oihartzunak» lanak?

Hauspoa eman zion Donostiako Zinemaldian izan zuen harrierak, oso ona izan zelako, Espainiako zein Euskal Herriko

kritikaren aldetik. Eta bestelako jaialdietan ere izan da: Brasilen, Frantzian, Suitzan, Estatu espainolean barrena asko bidaiatu du... eta oraindik ere badauka bidea. Urtarril honetan Gasteizen egingo dugu estreinaldia Araba izan delako konkistatzeko falta zaigun euskal lurraldea. Nire helburua filma hedatzea da eta eskatzen diguten lekuetara eramaten dugu.

Zure hurrengo proiektuak antzerako gaia al dauka?

«Hollywooden XX. mendeko lehen erdialdean emakume pila bat ibili ziren ekoizle, gidoi erosle, muntatzaile moduan lanean, baina oso gutxi ezagutzen ditugu»



Oso desberdina izango da. Nire ikerketatik eratorritako zinemaren inguruko entsegu bat da. Aurrekoan Miren erregistratzen bagenuen, oraingotan ez dugu erregistratuko gure pelikulan zehar ibiliko den mamurik.

Protagonista zinemagintza bera izango da, 'route movie' bat izango da, ez fikziozkoa. Prozesuan gabilta, idazten, filmatzen, tarteka irudi berriak eskuratzen... Gustatuko litzaidake laster prest egotea, 2018an zehar.